

ZENBAIT IKASGAIEN DESKRIBAPENA

IKASGAIAREN IZENA: ARTISAUTZA	MAILA: DBH 3
IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA: Tailer honetan teknika tradizionalak landuko dira eskuekin. Diseinu tradizionala eta eskuzko teknikak landuko dira. Hasieratik amaierainoko proiektuak landuko dira, jarraitasuna ezinbestekoa izanik.	
EDUKI ESANGURATSUENAK: <ul style="list-style-type: none">• Buztinezko modelatua• Grabatu teknika• Otargintza	

IKASGAIAREN IZENA: MUSIKA	MAILA: DBH 3
IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA: Ikasleek egiten dakitena kontuan hartuta, musika taldean egingo dugu hainbat modutan. Baliabide eta erreperitorio ezberdinak erabiliko ditugu ikasturtean zehar. Edukiak modu praktikoan jorratuko ditugu.	
EDUKI ESANGURATSUENAK: <ul style="list-style-type: none">• Musika hizkuntza<ul style="list-style-type: none">- pultsoa eta oinarrizko patroi erritmikoak- analisia: forma, letra• Praktika: interpretazioa eta espresioa<ul style="list-style-type: none">- dantza eta gorputz-perkusioa- ahotsa- ikasleriaren arabera, hainbat instrumentu• Kultura musikala<ul style="list-style-type: none">- Euskal musika- Internatzionala	

IKASGAIAREN IZENA: INFORMATIKA TAILERRA	MAILA: DBH 3
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Astean bi orduz landuko den tailer honek, informatikaren oinarri praktiko bat lortzea du helburutzat. Edozein arloren (euskara, ingelesa, gaztelera, matematika, gizarte, etab.) laguntzarako, sormenerako, ikasketarako eta lan tresna bilaka dadin, zenbait programa eta trebezien ezagutza landuko da.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpena: Kalitatezko aurkezpenak egiteko teknikak landuko dituzte, gai zehatz bati buruzko aurkezpen bat prestatuz eta eginez. • Kalkulu orria: Kalkulu orrien erabilera ezberdinak landuko dira, adibidez, Santo Tomas posturako kontabilitatea eramateko dokumentua sortuz. • Programazioa: Code.org eta Scratch erabiliz, beraien lehenengo programak eraikiko dituzte (normalean jokoak). 	

IKASGAIAREN IZENA: FRANTSES TAILERRA	MAILA: DBH 3
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Maila honetan konpetentzia guztiak landuz jarraituko dugu: Ulermena (bai idatzitako testuekin hala nola Ahozkoarekin) eta Ekoizpena (Idatzizkoa eta ahozkoa).</p> <p>Sei unitate lantzen ditugu ikasturtean zehar. Unitate bakoitzean Gramatika, hiztegia eta komunikazioa lantzen ditugu.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <p>Aurreko ikasturteko eduki esanguratsuenak berrikusi.</p> <p>Deskribapenak, gertaerak eta sentimenduak kontatu eta ulertu era sinplean iraganean, orainaldian eta geroaldian.</p>	

IKASGAIAREN IZENA: FRANTSESA (FRANTSES PROIEKTUA)	MAILA: DBH 3
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Maila honetan konpetentzia guztiak landuz jarraituko dugu: Ulermena (bai idatzitako testuekin hala nola Ahozkoarekin) eta Ekoizpena (Idatzizkoa eta ahozkoa).</p> <p>Sei unitate lantzen ditugu ikasturtean zehar. Unitate bakoitzean gramatika, hiztegia eta komunikazioa lantzen ditugu.</p> <p>Maila A2</p> <p>Frantseseko klaseetan bereziki gramatika landuko da, hala nola testuen ulermena. Balore etikoetan liburuak frantsesez irakurri beharko dituzte, laburpena iraganean eginez eta klase guztiaren aurrean ahoz azalduz. Era berean komunikazioko egoera ezberdinak landuko dituzte. Musikako orduan abestiak eta musikarien biografiak frantsesez landuko dituzte.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <p>L'imparfait, le Passé Composé, le futur, le subjonctif , les hypothèses, la double pronominalisation.</p>	

IKASGAIAREN IZENA: MAKINA eta ASMAKIZUN TAILERRA	MAILA: DBH 3
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Makina eta asmakizun tailerra nagusiki praktikoa da eta bere funtsa sentiberatasun teknologiko eta artistikoa garatzea da. Tailerreko tresna eta makinaren erabilera zuzena egiten ikasiz, eta material ezberdinak erabiliz, emaniko arazo-egoerei konponbidea era sortzaile batean emango diete. Proiektuen-metodoa eta objektuen-analisisa izango dira metodologia ardatzak.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Asmakizunak eta asmatzaileak historian zehar. • Tailerrezko oinarriko eragiketak. • Proiektuen- metodoa. • Ideien adierazpena (adierazpen grafikoa, ahozko eta idatzizko adierazpena). • Makinak eta mekanismoak. • Elektrizitate eta magnetismoa. • Birziklapena. • Energia berriztagarriak. 	

IKASGAIAREN IZENA: ZIENTZIAREN IKERKETARAKO HURBILKETA	MAILA: DBH 3
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Ikasleek trebetasun zientifikoak garatuko dituzte, besteak beste: adimen malgutasuna, jakin-mina, zentzu kritikoa, egintzak egiaztatzea, bistakoa zalantzan jartzea, lankidetzeta eta talde lan harremanak. Horretarako gainerako ikaskideekin elkarlanean arituko dira, inguruneko egoera problematikoak aukeratu, ikertu, hala balegokio, konpontzeko, eta haien iritziak ikuspegi kritiko batez onartuz eta lanetan aktiboki parte hartuz. Jarduerak burutzerakoan eta materiala erabiltzean ordena eta garbitasun ohiturak garatu nahi ditugu, segurtasun-arauak betetzeak duen garrantzia ohartaraziz.</p> <p>Ikertuko diren arazoak natur fenomenoek, bizi garen inguruneko eguneroko egoeren edo teknologi aplikazioen artean aukeratuko dira.</p> <p>Metodologiak lanak ikerketa txikiak egiteko joera izango du. Ondorioak errealitatearekin lotu behar dira (eguneroko egoerak, fenomeno naturalak, teknologia ...)</p> <p>Ikasleek ingurumena zaintzen ikasi beharko dute, baita laborategia eta bere tresnak ere. Laborategian sor daitezkeen arriskuez jabetzea eta ardura eta norberaren irizpideak aplikatuz arriskua saihesten ikasi beharko dute.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Fisika-kimikako laborategia. Garbitasuna eta segurtasuna. • Fluidoekin lotutako teknikak. • Tenperaturari lotutako teknikak. • Substantziak banantzeko teknikak. Soluzioen prestaketa eta azterketa. • Masa eta bolumenaren neurketa. • Erreakzio kimikoak. 	

IKASGAIAREN IZENA: ZINEA ETA LITERATURA	MAILA: DBH 3
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Honako hau da irakasgaiaren helburu nagusia: Filmak ikustea, eta literatura-testuak irakurtzea, batzuen eta besteen esanahiaz eta balio artistikoaz jabetuz,</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zine eta literaturaren generoetatik egin beharreko ibilbide bat proposatzen da: nola gauzatu diren generoak arte-adierazpen hauetan. • Edukiak lan bikoitz baten bidez artikulatzen dira: genero, garai eta kultura desberdinetako filmak ikustea eta aztertzea, alde batetik; genero hori literaturan nola gauzatu den aztertzea, bestetik. 	